

## Aizarnako oilasko-biltzea

(The gathering of chickens in Aizarna)

Legorburu Arzamendi, Mikel  
Eusko Ikaskuntza  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48  
20007 Donostia

BIBLID [1137-439X (1997), 14: 49-79]

---

*Abuztuko Ama Birjinaren egunaren inguruan ospatzen diren Aizarnako jaietan aspalditik ematen da oilasko-biltzearen ohitura. Gazteek eguna pasatzen dute ihardun hontan. Goizez baserriz-baserriko ibilaldiari ekiten diote. Eguerdian plazan, Gizon-dantza ateratzen dute, eta elkarrekin bazkaldu ondoren, arratsalde, kaleko jiran aritzen dira etxez-etxe. Atari bakoitzean halako dantza bat egiten dute. Lan honek azken urte hauetako ospakizun honen berri dakar, jaso ahal izan diren datu zehatz eta ugariekin, besteak beste aizarnarrek erreferentzi bezala izan dezaten.*

*Giltz-Hitzak: Folklore. Ospakizun. Nekazal gizartea.*

*En torno a las fiestas de la Virgen de agosto es costumbre en Aizarna la recogida de pollos. Los jóvenes pasan la jornada en este quehacer. Por la mañana se recorren los caseríos. Al mediodía se saca la "Gizon-dantza" en la plaza, y tras almorzar todos juntos, por la tarde se lleva a cabo el recorrido casa por casa en el casco del pueblo. Hay una danza que se interpreta a la puerta de cada casa. Este trabajo trata la celebración de los últimos años, recogiendo abundantes y concretos datos, sobre todo a fin de que pueda servir de referencia para los aizarnarras.*

*Palabras Clave: Folklore. Celebración. Sociedad rural.*

*Illexiste une coutume à Aizarna qui consiste en un ramassage de poulets lors des fêtes de la Vierge au mois d'août. Les jeunes dédient leur journée à cette tâche. Le matin, on va de ferme en ferme. A midi on danse la "Gizon-dantza" sur la place et l'après-midi, après avoir pris le goûter tous ensemble, on termine le parcours de maison en maison dans tout le village. Une danse est interprétée à la porte de chaque maison. Ce travail concerne la célébration de ces dernières années, recueillant des données concrètes et nombreuses, afin qu'il puisse servir surtout de référence aux habitants d'Aizarna.*

*Mots Clés: Folklore. Célébration. Société rural.*



## SARRERA

Aizarna dugu Gipuzkoako txoko eder eta berezietako bat. Gaurregun Zestoako udaldermioan aurkitzen bada ere ez da jatorriz halako egoeran bizi izan. Aspaldi, dexente garrantzi gehiago izan zuen Aizarnak inguruko eskualdean, bailarako Zestoa bere auzo izanik, bestelako garrantzi berezirik izan gabe. Bizimoduak Erdi Aroan izan zituen aldaketek eragin nabarmena izan zuten Gipuzkoan, eta, nola ez! Aizarnan. Molde berritara egokitzen ari zen bizimodua: menditik haranera, artzaien ingurutik baserritarrenera, eta hauek ere herritara bermoldatzen hasiak ziren, bilakaera zehatz bat gauzatu.

Haranak bizimodu berri batera egokitzen hasi ziren, eta hala, ekonomia, komunikabide eta Erregek onetsi/eskeinitako Hiri-Foruak zirela eta garrantzi gehiago hartu zuen. Herriaren aginte inguruak ere haranera jeitsi zen, eta honela, Zestoak Aizarnari berari nagusitasuna ere kendu zion: Zestoa "herri" bihurtu zen, eta Aizarna haren auzo bilakatu. Nola nahi ere, oraindik orain, Aizarnarrak ongi bereiztuak sentitzen dira, auzo baino herri sentituz beren jatorria.

Beste zenbait kontutan bezala, oso berea duten ohitura gorde eta zaharberritzen saiatzen dira urtero. Abuztuko jai nagusietan ospatzen duten oilasko biltzeaz ari natzaizue. Honako lantxo hontan azken urteotako oilasko- biltze ohituraren deskribapena adierazten saiatuko naiz. Batetik herriak berak erreferentzi gisa izan dezan, ondo egindakoak kontutan hartu, eta daitezkeenak eta beharko liratekenak egoki bermoldatzeko. Bestela ere, parte hartzen ala ikusle izan garenontzat oroigarri estimagarria izan daiteke, eta orohar, bai horixe! etnografia, antropologia eta batez ere folkloreaken alor aberatsak interesaturik dituen guztiak.

## ANTOLAKETA

Oilasko-biltzearen ohitura abuztuko jaietan txertatzen da betidanik, eta hauen antolaketa herriko gazte jendeak hartzen du bere gain. Azken urteotan Jai Batzorde bat arduratzen da datak, azpiegitura, egitaraua, aurrekontuak eta abar antolatze asmotan.

Aste Santuaren ondoren hasten dira gazteak jaien gaineko kontuekin, eta berehala aukatzen dute noiz izan behar duen oilasko-biltzearen jaia. Aspaldi abuztuko Ama Birjiñaren bigarrenean ospatzen zen. Egun, abuztuaren 15a bera jai nagusi bezala mantentzen den arren, oilasko-biltzearen ohitura gertueneko igandera aldatzen dute, eginkizun bezala aurrera eramateko errazago egiten baitzaie : dantzariak, musikariak, bertan bizi diren herritarrak eta kanpora irtenda direnak ere Aizarnara libreago egokitzen dira eta jai egunean.

Noiztik horrela ? Betidanik izandako jaia izan dela gogoratzen dute herrikoek, baina mende hontan bertan eman da etenik. Espainiako Guda Zibilaren ondoren ospatu izan bada ere, geroxeago nola edo hala utzikieran geratu zen. Duela hamar bat urte, gazte batzuren ilusioaz (bata dantza talde batean saiatu izana) berriro ere irten ziren oilasko-biltzaileak. Behin-edo kale egin ondoren azken urteotan tinko eusten ari den jaia da, adinean sartzen hasten hasi diren gazteek errelebo arriskurik ez dagoela garbi baitute.

Honela bada, azken lau urtetan ikusi eta ikasitakoaz arituko natzaizue.

Folkloreren gaineko teoria/praktika gaiak eztabaida ugari dabil betidanik. Ez da seinale txarra, printzipioz, eztabaida dinamikoaren ezaugarriak hartzen baititu. Hala ere, gutxiren arteko eztabaida izaten dela erraz egiaztatu daiteke, ez baitago gizarte osoan zabaldua. Hortik seinale txarra, itxuraz atzera dihoan gaia dugu, ez omen da hain interesgarri hontaz aritzea, eta komunikabideek ez diote beharko lukeen maila ematen.

Pittin bat aztertu dezagun. Badira, batetik, ohitura zaharrak “beti egin izan den bezala” ala “jasoak izan diren bezala” bete beharko liratekeela diotenak. Eta, bestetik, kutsu tradizionala nolabait mantenduz ohiturak bermoldatu behar direla diotenak, era berriak sortu, eta lehendikakoekin txertatu. Ez du axolarik zerk duen nagusitasuna, lehengoaren sustraiak ala egungo kimu berriek.

Aizarnako oilasko-biltzearen ohiturak garbi ematen du aditzera sakoneko gai hau. Bolada batean, halako urte batzutan ospatu ez delako, lehengoek galdetzen saiatu izan dira. Baina tartean izan duten etena dela eta, egungotasuna ere ezarri diote ohiturari. Ez dira estu-estu lotu. Malgutasun egoki eta apropos bat erabili dute. Ondorioa bistan dugu: jaia aurrera egiten du. Gazteenak desiatzen ari dira eguna iritxi dadin parte hartu ahal izateko. Hementxe aipatu behar beste jai batzuekiko aldea : hauek ondo pasatzeko..., asteburu eder batean bezainbeste disfrutatzeko ilusioarekin hartzen dute parte egun mantendu ere egiten den beren ohitura bat gozatu eta ingurukoei gozatu araziz, ez ordea “lehengo ohitura zahar bat” espektakulo bihurtu eta urduritasunez antzetzuz, ikuslea lehengo garai batera bidali nahian, eta askotan hori bera lortu ezinik... Haiek unea bera gozatzen dute, eta horrexegatik jarraitzen du alai giroan ikusleak “lehengo- aspaldiko ohitura den ala ez” orduantxe burura etorri gabe.

Ospatze eguna ez aspaldikoa. Eguneratu izan dute. Baina ez nola nahi ere. Ez da beste urte sasoi batera aldatu. Lehendikako data inguruan mantentzen da, jaia gozatu behar dutenen komenirako asteburuan finkatzen baitute.

Ibilbidea ez da erabat zehatza: urtetik urtera aldakuntza txikiak ematen dira. Zertarako pasa bertan inor ez dagoen baserritik? Bestetan handik igaro izan delako? Ez ba...

Jazkiak. Ohikoak, halakoak izaten dira. Berdinak edo antzekoak erabiltzen dira. Inork ez du gaizki ikusiko txapela daramana edo abarkak jarri dituena, alkandora txuria jantzita daramana edo lepotik kolore aberatsetako zapia zintzilikatu duena. Ohikoa ondo edo normal ikusten den bezala, ez da gaizki ere ikusten bat txapelarik hartu gabe, kiroletako zapatilak jarri, marrazkiren bat duen kamixeta jantzi edo laukidun zapi txuriurdina badaramatza. Itxura bat mantentzen da, inork ez du behartzen, inor ez da behartua sentitzen, lotsak alde batera, ez da "besteentzako espektakuloa" antzezten, bertan txertatua dagoen jaija beraiek disfrutatuz ikusleek ere disfrutatzen dute. Ikusle horiek, hori bai oso gertutik jarraitzen dutenak, ez dago halako distantziarik oilasko-biltzaile eta ikusleren artean.

Ospatze data, ibilbidea eta jazkiak aritu natzaizuen bezela, beste zenbait atal ere antzera aipa litezke. Honek ez du inolaz ere zalantzan jartzen jaija "halako" data baten inguruan ospatuko dela, ibilbideak "halako" norabide eta ordutegi bat izango duela, jazkiek "halako" itxura bat mantenduko dutela, oso dantzari trebeak ez izan arren plazara irtengo direla, pare batek edo hurrengo urterako ezpatadantzariarena egiten saiatuko dela aginduz... Doinua berean mantenduko da, eta guzti honen gainetik, aldatzen ez dena, jaiaren euskarri nagusienetako, baserri bakoitzean, plazan eta kaletako etxe ataritan emango den giro alai eta eskertua.

Eguerdiaren plazan ekiten zaion "Eskua aldatzeko soinua" dantzatzen ari zirela Aizarna bertako biren arteko elkarrizketa adierazgarria entzun izan nuen. Batek zion ea ez al zuten dantzari haiek urtean zehar zerbait egin beharko dantza hura ikasi plazan itxurosoago agertzeko, eta bestearen erantzuna, den dena ikasia eta milimetratua izan balitz hura ez litzatekeela "hura" izango. Dantza norberaren espresio bide bat zen, eta arau minimo batzuren eremuan aritu bitartean (nori dantzatua, musikak luzaera eta erritmoz agintzen duenaren arabera...), malgutasunarekin, egoki izango zen, jendearentzako ikusgarri eta denon gozamenerako. Gainera, baldintza estuak izango balituzte ziurtatu ahal izango genuke dantzari "baldar" haiek ez liratekeela plazaratuko, kritika ezezkorrek ohitura hortatik baztertuko litzukete, eta jaiak behera egingo luke. Baina sustraietara joanaz, ez litzateke "bakarrik" izango ohituraren galtzea, baizik eta horretaz gainera Jaietan giro ona izan dadin eusten dionaren galera, egungo partehartzaile zoriontsuak asperraldi luzetan amilduz. Giro malgu honek ondorio baikorrak dakartza: gaztetxoak pixkanaka hartzen ari dira lehengoaren haria; aurreko urtetan aritutakoek pozik ikustatzen dute egungoa eta aitzaki/arrazoirik ere bilatzen dituzte urteurrenen batean zahar eta gazteak, denak, partehartzeko, zaharrenei omenaldia eskeiniaz; eta azkenik ere inori ere badatorkio burura ohitura honen inguruan bizitakoaz idaztera, jai eder honek beste euskarri bat izan dezan: eskuartearen daukazuna.

## **IBILBIDEA**

### **BASERRIZ-BASERRI**

Goizetik, eta herriko plazako Gazteen Biltokitik abiatuta, inguruko baserriak bisitatzen dira, bakoitzaren atarian dantza eskeiniz. Ordainez, oilaskoa edo dirua jasotzen da. Ibilbidea eguerdian bukatzen da herriko plazan.

### **PLAZAN**

Eguerdiaren oilasko biltzaileek "Gizon-dantza" edo "Aureskua" ateratzen dute plazan. Gero plazan bertan bazkaltzen da.

## KALEZ-KALE

Goizez baserriz-baserrri ibili izan diran antzera arituko dira arratsaldez ere, baina oraingotan kaletako etxe ataritan aurkeztuz.

Ohituraz betetzen den baserriz-baserrriko eta etxez etxeko ibilbidearen segida zehazten zaizue ondoren. Ohar bat aurretik : ondoreneko izenak Aizarnan bertan ezagutzen diren eran idazten dira, jakinarean gainean izanik aberastasun handia dagoela jatorrizko izena, izen ofiziala (?) eta bertakoek duten esateko eraren artean. Kontu hau dela eta, filologo/etimologo saiatuei beta utziaz, egun ezagutzeko erarik errezenak izan daitezkeenak eskeintzen dira.

## S. Gazteen Biltokia.

1.Aranburu.	2.Urrutikoetxea.
3.Irabarren.	4.Antxintxardi.
5.Ibarra.	6.Sorozabal.
7.Aizarnabate.	8.Igarantxo.
9.Elkoeta.	10.Lauhaizeta.
11.Kutxeta.	12.Aldalur.
13.Saletxeburu.	14.Aizpuru.
15.Egañazpi.	16.Listorritza.
17.Bikendi.	18.Gorotzarri.
19.Arano.	20.Aranobaso.
21.Ezenarro Behekoa.	22.Ezenarro Goikoa.
23.Agina.	24.Etxesaletxe.
25.Apategi.	26.Etxeberri.
27.Zabala.	28.Potzueta.
29.Benezi.	
30.Etxe Garai.	31.Askatzu.
32.Bidekutze Berri.	33.Bidekutze Zaharra.
34.Apaiz Etxea.	35.Partzuelgo.
36.Elizalde.	37.Kantoikua.
38.Alkatekua.	39.Konpittoko.

## E. Eskola.

40.Barberoko.	41.Teixane.
42.Naparko.	43.Xegundone.
44.Portu.	45.Kalegoiene.
46.Arretxe.	47.Puertokoa.
48.Etxeberri.	49.Xalamunene.
50.Martiñene.	51.Etxe Luze.
52.Dione.	53.Intzina.

Eta azkenik, 54.Plaza.

Batzutan Benezin bukatu izan da goizeko ihardunaldia. Beste batzutan bi baserrri gehiago ibili izan dira, Etxe Garai eta Askatzu, arratsaldeko jirari hasiera Bidekutze Berrin emanaz hasiera.





## **PERTSONAIK**

### **MUSIKARIAK**

#### *\* Soinularia*

Dantzariak baserriz-baserri, kaleko etxe ataritan eta herriko plazan ekiten dioten dantzaren musika jotzen dute.

Atari batetik besterako bidean biribilletak ere jotzen ditu. Atariren bat edo bestean fandango edo arin arinik ere jotzen du.

Panderojolerik ere lagundu izan badio inoiz (1994.ean), soinulari bakarra aritzen da.

Biribilletak ohizkoak izaten dira, ospakizun hontarako berezirik izan gabe.

#### *\* Txistulariak*

Oilasko-biltzaileen bidea jarraitzen dute, nahiz baserriz-baserri, nahiz kalean, etxez-etxe. Ez dute ataritan ekiten zaion dantzaren doinua jotzen.

Baserriren arteko bidea alaitzen dute soinulariekin txandaka arituz, ataritan ere fandango, arin arin edo bestelako piezak jotzen dituztelarik.

Nolanahi ere, txistularien betebeharrak nagusiena, berezkoa, eguerdikoa izaten da, oilasko-biltzaileek "aurreku" edo gizon-dantza plazaratzen dutenean.

\* Inoiz izan daiteke musikalaria konbidaturik, nahiz kanpotarra izan, zerbait jo dezakeena. 1994.ean Joan Guixeras "Mamut"ek (Catalunya) grallaz euskal pieza bat jo zuen, Roman Kintanak xirulaz lagundu ziolarik.



Txistulariak



## DANTZARIAK

### \* *Atariz-atariko ihardunetan*

- Ezpatadantzaria. Taldearen buruzagi agertzen da.
- Makilarekin aritzen direnak. Zortzik dantzatzen dute batera. Zortzi lagunetik gora bilduz gero, txandaka aritzen dira.
- Zahagiarekin aritzen direnak. Bi izaten dira.

### \* *“Aurreku” edo Gizon-dantza.*

- Mutilak.

Oilasko-biltzen ari diren mutilek osatzen dute soka, hasiera batean. Hauetatik lau bereizten dira :

- Aurrekularia : sokaren buruan jarri eta dantza gidatzen duena.
- Atzeskularia : sokaren azken eskua da, eta aurrekulariarekin batera darama darama ardura.
- Dantza-zerbitzariak : sokan bigarren eta azkenaurreko eskutan dantzatzen dutenak dira. Neskak aukeratu eta gonbidatzen dituzte sokara.

- Neskak.

Dantza-zerbitzariak plazara gonbidatutakoek osatzen dute nesken taldea. Hauen kopurua mutil dantzarien araberakoa izango da, bana. Aurrekulari eta atzeskularien bikoteek izango dira ohore handienekoak. Oilasko-biltzen aritzen diren neskek ez dute parte hartu ohi izaten.

## OILASKO-ERAMAILEAK

Baserritan biltzaileei eskeinitako oilaskoak daramazkitenak. Normalean bi lagun arduratzen dira oilaskoen garraiatzeaz, nahiz besteek ere lagundu izan.

## POLTSEROA

Oilaskoak izan ezik, biltzaileei bisita diruz eskertzen dietenean, txanponak poltsan biltzen dituenak.

## ETXAFERO ZALEA

Oilasko-biltzaile bidean zehar, tarteka, katxapero edo suziriak jaurtitzear arduratzen dena.

## BESTELAKOAK

Pertsonai hauetaz gain, bada ere beste taldetxo bat (lau-sei bat) sukaldari-zerbitzari lanetan aritzen direnak, goizaldean jasotako oilasko batzuk oinarritzat hartuaz herriko plazan biltzaileei prestatzen dietenak.



Oilasko-eramaileak

### **JAZKIAK ETA TRESNERIA**

Oilaskoak-biltzen aritzen diren guztiak daramate jazteko era antzekoa. Hauexek dira lehendik jantzi ohi izan dena :

- Alkandora txuria.
- Mahoizko galtza urdinak.
- Oinetan artilezko galtzerdiak eta abarkak.
- Koloredun zapia lepoan.
- Txapela beltza (aurrekuan bereizten diren dantzariak txapelan ere izaten dute bereizgarria, gorria izanik, ala trentzatutako kolorezko zintez apainduta bere ertzean).

Gauregun jazki hauek mantentzen badira ere, Aizarnako jaietan eskeintzen den malgutasunaz medio, erabiltzen dira baita ere :

- Nikia ala kamiseta, txuria beti ere.
- Galtza bakeroak, ala bestelakoak ere, urdinak beti. (Txuririk jantzita izan da baita ere musikalariren bat).
- Zapi laukidun txuriurdina.
- Alpargata beltzak, kirol oinetakoak...

Ezpatadantzariak jazkera bereziagoa darama :

- Alkandora txuria.
- Galtza txuriak.

- Gerriko gorria.
- Galtzerdi txuriak.
- Zinta gorriz apaindutako alpargata txuriak.
- Txapela gorria.

Tresnei dagokionez, ezpatadantzariak ezpata batez osatzen du bere itxura. Metro eska-seko luzera izaten du, eta zintez apainduta darama aho osoa (txuri-gorritz, txuri-berde-gorritz...), estu-estu jiraka goitik behera. Ezpataren buruan lore eder bat jartzen zaio izkinako azken zinta-bueltetan eutsita. Ibilbidean lorea ximeldu edo galduko balitz, beste berri bat jarriko litzaioke, baserri asko bait dira lore ederrak zaintzen dituztenak etxe inguruan. Esate baterako, 1995.ean bost bat aldiz berri behar izan zen ezpata- buruko lorea.

Dantzariak makil bana daramate. Gaztainondo makila izaten da, gutxi gora beherako metro eta erdiko luzeran, eta hiru bat zentimetro inguru diametroan.

Zahagiak bi izaten dira. Antxume larruz egokitu eta airez puztutakoak. Ez dira dantzarako besterik erabiltzen beraz. Lepoko korapilotan zintatxoak jarri izan zaizkie apaindura moduan.

Bildutako oilaskoak lehen aipatu dugun bezalako makil lodixeago batetik zintzilika ermaten dira.

Poltseroak, izenak dionez, halako poltsa bat darama sorbaldatik zintzilik.

## **IHARDUNALDIA**

GOIZEZ. Baserriz-baserriko ibilaldia.

Goizeko 8-00 retan irtetzen da taldea, herriko iparmendebalderantz hasi, eta eguzkiaren zentzuari jarraituz, mendi ingurua ibiltzen da, baserriz-baserri ohiko jaiia berrituz.

Mendiko pista, zelai eta bidexiorrak ibiliko dira. Soinua, txistu eta danbolina, giro alai, bezperako jai eta gaupasaren aztarnak, irrintzi eta algarak, etxaperoak gora, pixkana-pixkana hurbiltzen dira ataritara.

Etxekoak zai izaten dira. Oilasko biltzaileek oso harrera ona izaten dute. Dantza taldea osatuko da, eta lanean jartzen dira. Ondoren saria jasotzen dute : batzutan oilaskoa izango da, hanketatik lotu eta makilatik zintzilikatuko dena, bestetan dirua izango da, poltseroak jasoko duena. Kasu askotan oparia otorduarekin osatzen da, halakotan sagardoa, bestetan zahatoa, txorizoa, txanpaina, tortila, gazta, txakolina...

Azkenik, herriko plazara jexkiko dira, irtetzerakoan baino umore alaiagorekin oraindik ere, zalantzarik gabe.

EGUERDIAN. Plazako "Gizon-dantza" edo "Aurrekua".

Oilasko biltzaileen taldea herriraterakoan, plazan aurkitzen den eskolako gela batean biltzen dira. Han, denak ixilik, gizon-dantza nola eramango denaren adierazpenak adi-adi entzuteko prest elkartzen dira.

Baserriz-baserriko ibilaldia herriratu ondoren, Gizon-dantza edo aurrekuan aritu behar duten oilasko- biltzaile mutilak plazan bertan aurkitzen den eskolako gela batean biltzen dira.

Hona hemen dantzaren garapena :

Dantzatzeoak dira ere soiniaria eta panderojolea (datorrenean). Mutil biltzaile asko izanez gero, batzuk beren borondatez geldituko dira ikusle.

Dantzaren arduradunak (Xabier Esnaola) adierazpenak ematen ditu : nortzu izango dira lehena eta azkena, nortzu nesken bila arituko diren dantza zerbitzariak, noiz eta nola ekin beharko dioten lanari zehaztuz, zapiak nola erabiliko diren... Ohar orokor eta zehatzak... galderarik bai ?

Eta plazara...

Oilasko-biltzaile mutilak (batzutan denak ere ez, kopuruaren arabera) eskuak eman, eta soka plazara irtetzen dira, txistularia aurretik dutelarik. Txistularia lazaren eskubiko aldean, edo frontoiaren gerizpean jartzen den bitartean, sokak plazari jira emango dio, borobilean, barruko aldera begira eta ilargiaren zentzuan.

Soka ibiltzerakoan Gipuzkoako ohiko "Hasierako doinua" edo "Aurkez-aurke" izenekoak erabiltzen da. eta aureskulari eta atzeskularien arteko aurkez-aurkekoa "kontrapasa" edo "agurra" izendaturikoak.

Gero aureskulariaren eta atzeskulariaren arteko aurkez-aurkea edo desafioa egingo dute. Dantza zerbitzariak, bigarrena eta azkenaurkekoa, sokaren bizkarretik irtetzen dira, eta plazako neska bereziren bat konbidatzen dute aureskulariaren bikote izan dedin. Ohorezkoa izaten da aukeratua izatea. Zerbaitengatik-edo ezaguna delako, kanpotar bisitarien bat, herriko neskatxa lirairen bat... Aureskulariaren parera gidatzen dute. Honek Ohorezko Agurra dantzatuko dio, eta ondoren soka gehitzen da, bere ezkerreko aldera, bien artean zapia eutsiz.

Bigarren neska baten bila hasiko dira dantza zerbitzariak, eta prozesu berbera emango da atzeskulariarekin. Agurraren ondoren soka sartuko da dantzariaren eskubitara, beti gorde behar baitiduzte sokaren ertzak dantza gidariek.

Bi gidarien bikoteak osatu ondoren zerbitzariak ikusleen artean sokko gainontzeko dantzariarentzako neskatxa bana konbidatuko dituzte. Errenkada sokaren bizkar aldetik atzetik aurrera abiatuko da dantza zerbitzariak aurretik eta atzetik laguntzen dituztelarik, txistulariaren aurkez-aurkeren doinua entzunaz mutilak mantso-mantso aurrera dihoazen bitartean. Errenkada aureskulariaren parera iristerakoan ezkerretara jira egin eta barruko aldera hasiko da, zerbitzarien agindutara neskek zuzenean mutilen artean banan-banan sartuz.

Doinua aldatzen du, eta "Eskua aldatzeko soina" jotzerakoan mutil bakoitzak, banaka, bere bikoteari dantzatuz arituko zaio. Txistulariak askatasuna du motelago edo arinago interpretatzeko, ez orokorrean dantzari denei, baizik eta halako bati edo besteari, abiadura aldatu erazteko... zirikatuz..., eta horretaz gain, dantzaria nola ari denaren arabera, doinua luzatu ere egin dezake, halako konpasak bitan errepikatuz, ala hirutan...

Atzeskulariak bere bikoteari dantzatu ondoren soka askatu egiten da, eta neska-mutil denek fandangoa eta arin arina dantzatzen dute. Gero eskuak emanaz soka berrerratu, eta kalejirari arituko dira plazan, azken batean bertatik irtenez.

Hortxe bukatuko da eguerdiko saioa. Solasalditxo izango da, basoerdiren bat... eta bazkaltzera...

Gizon-dantzei buruzko zenbait datu emango ditugu ondoren :

1992. urtean Jose Luis URBIETA izan zen aurrekularia, eta Xabier ESNAOLA atzeskularia.

Hona hemen 1993.ko sokaren osaketa :

- 1.- Jose Luis URBIETA.
- 2.- Manuel EIZAGIRRE.
- 3.- Jon BERGARA.
- 4.- Migel Anjel UZKUDUN.
- 5.- Gorka IRURETA.
- 6.- Aitzol ZURIARRAIN.
- 7.- Kike LLANOS.
- 8.- Xabier ESNAOLA.

Hona oraingoan 1994.ko sokaren osaketa :

- 1.- Xabier ESNAOLA.
- 2.- Migel Anjel UZKUDUN.
- 3.- Mikel LIZARRALDE.
- 4.- Jose Mari AIZARNA.
- 5.- Beñat ARRUE.
- 6.- Aitor AIZARNA.
- 7.- Ion ARRUE.
- 8.- Asier EGIGUREN.
- 9.- Aitzol ZURIARRAIN.
- 10.- Josu ZELAIA.
- 11.- Unai URRESTILLA.
- 12.- Iker SARASOLA.
- 13.- Inazio URBIETA.
- 14.- Juan Mari ELOSUA.
- 15.- Mikel LEGORBURU.

Ohar hauen ostean egoki izango dugu Gizon-dantzaren atalen segida aurkeztea :

ZER	NOIZ	DOINUA
1.- Zortzikoa. . . . .	soka plazan sartzen da. . . . .	“Aurkez-aurke”.
2.- Desafioa. . . . .	aurreku-atzeskuak. . . . .	“Agurra”.
3.- Zortzikoa. . . . .	1. neskaren bila. . . . .	“Aurkez-aurke”.
4.- Agurra. . . . .	aurrekuak 1. neskari. . . . .	“Agurra”.
5.- Zortzikoa. . . . .	2. neskaren bila. . . . .	“Aurkez-aurke”.
6.- Agurra. . . . .	atzeskuak 2.neskari . . . . .	“Agurra”.
7.- Zortzikoa. . . . .	gainontzeko nesken bila . . . . .	“Aurkez-aurke”.
8.- Zortzikoa. . . . .	mutilek banan-banan neskei. . . . .	“Eskua aldatzeko soinua”.
9.- Fandangoa . . . . .	denek, korroan . . . . .	“Goizueta”.
10.- Arin arina . . . . .	denek, korroan . . . . .	“Bizkai-dantza”.
11.- Biribilketa . . . . .	denek, eskutik hartuta. . . . .	“Saltarintxoia”.

1995.eko dantzaren kalitatea hobea izan zedin bi gaztek ezpatadantza ikasi izan zuten bezala, Gizon-dantzan ere maila hobea goazteko Pasaia dantzari bat gonbidatu zuten aurrekulari gisa aritzeko.

Orain 1995.eko sokaren osaketa eta atalen segida emango dugu :

- 1.- Gotzon POZA.
- 2.- Mikel LIZARRALDE.
- 3.- Aitor AIZARNA.
- 4.- Beñat ARRUE.
- 5.- Jose Mari AIZARNA.
- 6.- Jose Mari ETXABE.
- 7.- Jon ARRUE.
- 8.- Asier GONZALEZ.
- 9.- Aitor GURRUTXAGA.
- 10.- Xabier BERGARA.
- 11.- Iker SARASOLA.
- 12.- Asier EGIGUREN.
- 13.- Xabier ESNAOLA.

#### BAZKARIA.

Gizon-dantzaren segidan plazako zuhaitzen gerizpean prestaturik izaten den mahaira eseriko dira biltzaileak, merezitako otorduaz gozatzeko. Konbidaturik ere izaten da mahaira. Sukaldari eta zerbitzariak ere bertan bazkaltzen dute.

Hauxe izaten da ohizko menua : aurrenekoz jaso diren oilaskoekin prestaturiko paella (errepika ohi dena), eta natilak gailetekin. Gero kafea (hutsa nahiz anixatua), kopa... Giro alaiak, algarak, abestiak, dantzariak ere...

Sukaldariak Ohorezko Agurra dantzan izan zaie bazkalostean. Konbidaturiko dantzariak balitz saio txoa eskeini behar. Inork ere aurrean ikasitako dantzak erakusten ditu berriz ere, hurrengo urterako gehixeago ikasiko duela erabakitzen...

Azken urtetan gazteenak Gazteen Biltokian elkartu izan dira, bere giroan lasai aurkitzen bait dira, musika entzunez, berrikerian, zerbait hartuz...

Janaldia plazan egiten denez, bistan izaten dira bi kaletatik zeharkatzen duten kotxeak. Hauetako bakoitza igarotzerakoan izugarriko oihu eta algarak eragiten dituzte, nahiz gidariak ezezagunak izan.

Honelaxe... arratsaldeko Kaleko jira hasi arte.

ARRATSALDEZ. Kaleetan zeharreko jira.

Behin sabelak asetu eta solasaldiari denbora eman, halako ordu jakin batean biltzen dira berriz ere plazan soinulari, txistulari, dantzari eta gainontzeko oilasko- biltzaileak. Taldea elkar-tzeko ordua arratsaldean herrian izan daitezkeen jaien arabera zehazten dute : behin bostetan izango da, inoiz seietan...

Goizean baserriak bisitatu badira, arratsaldez herriko etxeei irixiko zaie txanda. Banan-banan ibiliko dira dantza bana eskeiniz etxetakoak alaitzen. Hauek, goizaldean baserrikoen

antzeria, edariz-edo eskertzen dute. Kaleingurua izanagatik ikusle gehiago biltzen zaizkio taldeari. Giroa oso alaia izaten da. Estreinatzen diren dantzariak ere ez dute jendaurrean agerzteagatik urduritasunik sentitzen : seguru eta lasai ekiten diote bereari. Beste batzuk juerga puntua borobildu xamarra izango dute, zahagidunak lehen baino gehiago bultzatzen dira, eta hauek ere errezago uzten dute erortzen bere burua...

Jira hau plazan bukatzen da, goizekoa bezala, pilotalekuan, eta bertan ekiten zaio azkeneko aldiz dantzari. Frontis aldean musikalariak, hauen ondoan oilasko eta eramaileak, eta plazaren erdian aurrekoei begira, dantzariak. Inguruan jendetza ikusle. Ezpatadantzariaren ondoreneko jorra-dantza-jokua bi eta hiru aldiz ere errepikatu izan da.

Dantzaren ondoren, ohituraz, oilasko-biltzean parte hartu dutenak argazkirako jartzen dira, oroigarri polita izaten baita gerora.

Eta honenbestez bukatzen da oilasko-biltzeak kalean ematen duena. Halaere, bestetik, bildutako oilaskoak hil, lumatu eta behar bezala jaso beharko dira, ondorengo egunetan presatu beharko den afarirako.

## ONDORENGO AFARIA


Jai egunetik bolada batera, biltzaileak mahaiaren inguruan biltzen dira egun hartan bazkaldu ziren oilasko haietaz gain jasotakoak afaltzeko asmotan.

Afaria herriko Gazteen Biltokian bertan egiten da, eta bertan ere ez da giro onik falta izaten. Hala moduzko herri-afari, kinto-bazkari eta abarretan bezala, ohikoak dira txisteak, pasadizo xelebreak, irriak, abesti herrikoiak...

Eta, hala, Jai honen zikloari amaiera ematen zaio, hurrengo udaberrian beste "edizio" bati hasiera emango zaionaren zain.

## DANTZEN DESKRIBAPENA

Soinulariak lehenengo notak jotzen hasi aurretik dantzariak honako irudia osatzen dute :



Dei doinua hasi hala, ezpatadantzariak zortzikoari ekiten dio, zinta eta lorez apaindutako ezpata eskubiz eusten duelarik behetik gora sorbaldaraino.

Honako urrats hauek dantzatzen ditu :

Hasteko deia soinuak aginduta,

- Deia dantzatzen du, eta segidan
- Ezpatadantzaren aseko urratsak, ezker-eskubi, hiruna aldiz, eta ondoren
- Deia jotzen du soinulariak : ezpatadantzariak eta zortzi makilariak erantzuten diote.
- Orduan hasten da jokua : ezpatadantzaria zerbait bazterten da, eta makilariak nola ari diren begiztatzen du. Hauek, gerriak aurrera okertu, makilak aurrekaldetik lurreraino jetxi, eta jorran balira arituz. Aurpegia, ezker belauna eta oina goitik behera zuzen daude, eskubiko hanka atzera.

Erritmoaren arabera makilaz kolpeak jotzen dira lurrean, hankekin jauzi txikiak eginaz aurreruntz, lehendabizikoz ezkerre mugituz. Aurrera lau kolpe egin ondoren, etenik gabe beste lauri ekiten zaie atzera, oraingoan eskubiko hankaz hasita. Hauxe bitan errepikatzen da.

Zahagizaleak bi eskuz heltzen diote zahagi banari honen aurreko hanka aldetik, bizkarre-ra altza, eta gerria okertuz, laukote tartetan ere aurrera eta atzera dabilta makilarekin batera, erritmoa errespetatuz.

[ ] arteko zenbakiak partiturak agertzen dituen unak dira.

Dantzari denak batera astindutako lurreko kolpeak :

Aurrera eginez	1	[ 1]
	2	[ 2]
	3	[ 3]
	4	[ 4]
Atzera eginez	1	[ 5]
	2	[ 6]
	3	[ 7]
	4	[ 8]
Aurrera eginez	1	[ 9]
	2	[10]
	3	[11]
	4	[12]
Atzera eginez	1	[13]
	2	[14]
	3	[15]
	4	[16]

- Ondoren, doinu aldatetarekin batera dantzariak tentetzen dira, zortzirek bi lauki osatuz. Makil dantzariak lau makilkadetako lau saio astinduko dizkie, bina, beste bi makil dantzariei.

Kolpeak emateko era : makilak behetik hartuta, muturra gora dutela, ezpata antzera harturik, baina bi eskuz, lau makilkadak aurrekoaren makilarekin jo beharko dira, lehen eta hirugarren makilkadak eskubitik ezkereruntz astinduaz, eta bigarren eta laugarrena ezker aldetik eskubi alderuntz.



Aurreko irudiko dantzari zenbakiei jarraituz, ondoren bikoteka jartzen ditugunak elkarri makilaz astintzen ari direla azaldu nahi du :

Beraien artean launa kolpeak, astindutako partitura lau unetan; hori lau aldiz (lau lerrotan) :

1-2 3-4 5-6 7-8 : [17], [18], [19] eta [20] unetan.

1-3 2-4 5-7 6-8 : [21], [22], [23] eta [24] unetan.

1-2 3-4 5-6 7-8 : [25], [26], [27] eta [28] unetan.

1-3 2-4 5-7 6-8 : [29], [30], [31] eta [32] unetan.

Makilkada saio hau kolpe indartsu batekin bukatzen da, laukote bakoitzaren erdian makurturik dagoen dantzariaren zahagi gainean [33].

Makilariak bere artean ari diren bitartean zahagizaleak lauki erdian egongo dira makurturik larruaren azpian.

Makil eta zahagi dantzariak egindakoa bitan errepikatzen da, bata bestearen segidan, dantza osoa bukatzeko. Azken aipamen bezala, zahagi zaleak jasotako ("sufritutako") azken kolpearekin lurrera erori ohi dira biribilean. Erortzen ez badira ere makilariaren batek edo bestek hankaz bultzata edo ostikoz lurreratuko du.

Hauxe bada ere dantzaren azalpena, ez genduke utzi behar aipatu gabe halako ohituratxo bitxi bat. Ezpatadantzaria paseoko urratsak markatzen ari den bitartean zenbaitetan izaten da bat edo beste bere makila altxatu, horizontal moduan jarri eta dantzariak oina noraino altxatu beharko lukeen erakutsiko diona. Neurri apropos hortaraino altxata balekoak entzungo ditu mutilak.

## MUSIKA. PARTITURAK

Oilaskoak biltzerakoan ekiten zaion dantzaren partitura eskeintzen da ondoren, atarizatari errepikatzen dena, beti era berdinean (tarteko txantxarrik ez bada behintzat).

Partiturak dakartzan zenbakiak dantzaren azalpenean agertzen diren erreferentziak dira.

Gizon Dantzari dagozkion partiturak "Txistulari" aldizkarian aurki daitezke. Baserriz-base-ri eta kale-jiran jo izan diren biribilketak era bertan aurki daitezke, hala nola:

Eusko  
Ai Ximon  
Santa Zezilia  
Agur Xuberua  
Baztan  
Elizondo  
Gora  
Bat, bi, hiru, lau  
Urte berri goiza  
Egun da Santimamina  
Saltarintxo

...

Hala ere, ondoren gehitzen ditut zenbaitetan jo izan ditudan beste hiru, eskuz idatzitakoak, argitaratugabeak baitira, neronenak.

~~ORANG-UTAN HACE DANTA~~ ~~ANAK~~ ②

201a

201b

201c

201d

201e

201f

201g

201h

25

← RAIHON - XADREN =

Handwritten musical notation for the piece "RAIHON - XADREN". It consists of four staves. The first three staves contain a single melodic line in treble clef, with various rhythmic values and accidentals. The fourth staff is empty. There is a signature and the year "1981" written at the end of the third staff.

→ KILAHETROAK BERTSIDAJ =

Handwritten musical notation for the piece "KILAHETROAK BERTSIDAJ". It consists of four staves. The first three staves contain a single melodic line in treble clef. The fourth staff contains a more complex rhythmic accompaniment in treble clef, featuring many beamed notes and rests.

Handwritten musical score for the first system, consisting of four staves. The first two staves contain musical notation with notes and rests. The third and fourth staves are empty.

= ALBERTO. #

Handwritten musical score for the second system, consisting of five staves. The first staff is a treble clef with a key signature of one sharp (F#). The second and third staves contain musical notation with notes and rests. The fourth and fifth staves are empty.

**PARTAIDEAK**

1992, 1994 eta 1995. urtetako partaideak izendatzen dira, zerak adieraziz : Abizena, izena, pertsonaia, eta parte hartu zuen unea (BB = Baserriz-baserri ; GD = Gizon- dantza ; KJ = Kale jira).

**1992.**

BERGARA, Jon	Dantzaria	BB - GD - KJ.
BERGARA, Pedro	Dantzaria	BB - GD - KJ.
BERGARA, Arantxa	Poltsera	BB - GD - KJ.
BERGARA, Jose Mari	Oilasko-eramailea	BB - - KJ.
EGIGUREN, Asier	Soinularia	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD.
ELORZA, Lurdes	Dantzaria	BB - GD - KJ.
ELOSUA, Juan Mari	Etxapero zalea	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD.
ESNAOLA, Xabier	Dantzaria	BB - GD : Atzeskularia. - KJ.
GURRUTXAGA, Josemai	Laguntzailea	BB - - KJ.
IRURETA, Gorka	Oilasko-eramailea	BB - - KJ.
LEGORBURU, Mikel	Txistularia	BB - GD - KJ.
LILI, Ana	Dantzaria	BB - KJ.
LLANOS, Kike	Dantzaria	BB - GD - KJ.
OTAEGI, Bittori	Dantzaria	BB - - KJ.
OTAEGI, Jose Inazio	Dantzaria	BB - GD - KJ.
URBIETA, Imanol	Txistularia	- GD - KJ.
URBIETA, Jesus Mari	Txistularia	- GD - KJ.
URBIETA, Jose Luis	Ezpatadantzaria	BB - GD : Aureskularia. - KJ.
URBIETA, Inazio	Dantzaria	BB - GD - KJ.
UZKUDUN, Migel Anjel	Oilasko-eramailea	BB - KJ.
	Dantzaria	- GD.
ZURIARRAIN, Aitzol	Dantzaria	BB - GD - KJ.

1993.

ALBERDI, Jabier	Oilasko-eramailea	BB - - KJ.
BERGARA, Arantxa	Dantzaria	BB - - KJ.
BERGARA, Jon	Dantzaria	BB - GD - KJ.
BERGARA, Xabier	Zahagi zalea	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD.
EGIGUREN, Asier	Soinularia	BB - - KJ.
EIZAGIRRE, Josu	Etxapero zalea	BB - - KJ.
EIZAGIRRE, Manuel	Dantzaria	BB - GD - KJ.
ESNAOLA, Xabier	Dantzaria	BB - GD : Atzeskularia. - KJ.
GURRUTXAGA, Josemai	Laguntzailea	BB - - KJ.
GURRUTXAGA, Jose Antonio	Zahagi zalea	BB - - KJ.
GURRUTXAGA, Mertxe	Dantzaria	BB - - KJ.
IRAOLA, Ana	Dantzaria	BB - - KJ.
IRURETA, Mila	Poltsera	BB - - KJ.
IRURETA, Gorka	Dantzaria	BB - GD - KJ.
LEGORBURU, Mikel	Txistularia	BB - GD - KJ.
LILI, Ana	Dantzaria	BB - - KJ.
LLANOS, Kike	Dantzaria	BB - GD - KJ.
MARESMA, Asier	Dantzaria	BB - - KJ.
OTAEGI, Bittori	Dantzaria	BB - - KJ.
SARASOLA, Iker	Oilasko-eramailea	BB - - KJ.
URBIETA, Imanol	Txistularia	- GD - KJ.
URBIETA, Jesus Mari	Txistularia	- GD - KJ.
URBIETA, Jose Luis	Ezpatadantzaria	BB - GD : Aureskularia. - KJ.
URBIETA, Luis	Oilasko-eramailea	BB - - KJ.
UZKUDUN, Migel Anjel	Oilasko-eramailea	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD.
ZURIARRAIN, Aitzol	Dantzaria	BB - GD - KJ.

## 1994.

AIZARNA, Aitor	Dantzaria	BB - GD - KJ.
AIZARNA, Jose Mari	Dantzaria	BB - GD - KJ.
ARRUE, Beñat	Dantzaria	BB - GD - KJ.
ARRUE, Jon	Dantzaria	BB - GD - KJ.
BASAURI, Maite	Dantzaria	BB - - KJ.
EGIGUREN, Asier	Soinularia	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD.
ELOSUA, Juan Mari	Etxapero zalea	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD.
ENBIL, Oihana	Dantzaria	BB - - KJ.
ESNAOLA, Xabier	Laguntzailea	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD : Aurrekularia.
ETXETA,	Dantzaria	BB - - KJ.
GALARRAGA, Aitziber	Dantzaria	BB - - KJ.
GONZALEZ, Igone	Dantzaria	BB - - KJ.
GONZALEZ, Asier	Dantzaria	BB - GD - KJ.
GUIXERAS, Joan	Laguntzailea	BB : gralla - KJ.
GURRUTXAGA, Josemai	Laguntzailea	BB - GD - KJ.
IDIAKEZ, Naroa	Dantzaria	BB - - KJ.
KINTANA, Roman	Txistularia	BB - GD - KJ.
LEGORBURU, Mikel	Txistularia	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD : Atzeskularia.
LETAMENDIA, Justa	Dantzaria	BB - - KJ.
LIZARRALDE, Oskar	Dantzaria	BB - GD - KJ.
OLAZABAL, Alaitz	Dantzaria	BB - - KJ.
OTAEGI, Jose Inazio	Dantzaria	BB - GD - KJ.
OTAEGI, Bittori	Poltsera	BB - - KJ.
OTAEGI, Joxe	Oilasko-eramailea	BB - - KJ.
SARASOLA, Iker	Dantzaria	BB - GD - KJ.
URBIETA, Jose Luis	Ezpatadantzaria	BB - - KJ.
URBIETA, Inazio	Dantzaria	BB - GD - KJ.
URRESTLLA, Unai	Panderojolea	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD.
UZKUDUN, Migel Anjel	Oilasko-eramailea	BB - - KJ.
	Dantzaria	- GD : Dantza zerbitzaria.
ZELAIA, Josu	Dantzaria	BB - GD - KJ.
ZURIARRAIN, Aitzol	Dantzaria	BB - GD - KJ.
ZURIARRAIN, Eider	Dantzaria	BB - - KJ.

1995.

AIZARNA, Aitor	Dantzaria	BB - GD - KJ.
AIERZA, Migel Anjel	Dantzaria	BB - GD - KJ.
AIZARNA, Jose Mari	Dantzaria	BB - GD - KJ.
AIZARNA, Aitor	Ezpatadantzaria	BB - GD - KJ.
AIZPURU, Aitziber	Dantzaria	BB - - - KJ.
ARRUE, Beñat	Dantzaria	BB - GD - KJ.
ARRUE, Jon	Dantzaria	BB - GD - KJ.
BERGARA, Jon	Dantzaria	BB - - - KJ.
BERGARA, Xabier	Dantzaria	BB - GD - KJ.
BERGARA, Ander	Dantzaria	BB - GD - KJ.
EGIGUREN, Asier	Soinularia	BB - - - KJ.
	Dantzaria	- GD.
ELOSUA, Juan Mari	Etxapero zalea	BB - - - KJ.
	Dantzaria	- GD.
ESNAOLA, Xabier	Dantzaria	BB - GD : Atzeskularia. - KJ.
ETXABE, Jose Mari	Dantzaria	BB - GD - KJ.
GONZALEZ, Asier	Dantzaria	BB - GD - KJ.
GONZALEZ, Igone	Dantzaria	BB - - - KJ.
GURRUTXAGA, Josemai	Laguntzailea	BB - GD - KJ.
GURRUTXAGA, Igor	Dantzaria	BB - GD - KJ.
IDIAKEZ, Naroa	Dantzaria	BB - - - KJ.
IRURETA, Ainara	Dantzaria	BB - - - KJ.
IRURETA, Gorka	Dantzaria	BB - GD - KJ.
IRURETA, Aitor	Dantzaria	BB - GD - KJ.
LEGORBURU, Mikel	Txistularia	BB - GD - KJ.
LIZARRALDE, Mikel	Dantzaria	BB - GD - KJ.
LIZARRALDE, Oskar	Dantzaria	BB - GD - KJ.
OLAZABAL, Alaitz	Dantzaria	BB - - - KJ.
OÑEDERRA, Jose Anjel	Dantzaria	BB - GD - KJ.
OTAEGI, Joxe	Oilasko-eramailea	BB - - - KJ.
POZA, Gotzon	Dantzaria	- GD : Aurrekularia.
SARASOLA, Iker	Ezpatadantzaria	BB - GD - KJ.
URBIETA, Imanol	Txistularia	- GD - KJ.
URBIETA, Jose Luis	Dantzaria	BB - GD - KJ.
ZELAIA, Josu	Dantzaria	BB - GD - KJ.
ZURIARRAIN, Olaia	Dantzaria	BB - - - KJ.
ZURIARRAIN, Eider	Dantzaria	BB - - - KJ.



Ez dugu partaideen atala amaitutzat eman nahi urte hauetan lanean aritu diren sukaldari eta zerbitzariak aipatu gabe. Hauek dira gogoan ditugunak :

ARANETA, Antonio.

ETXABE, Maritxu.

GURRUTXAGA, Mertxe.

GURRUTXAGA, Tere.

IRAOLA, Ana.

IRURETA, Axun.


LILI, Anaje.

LILI, Mila.

LILI, Pili.



Azken argazia. 1992




## AZKEN ARGAZKIA

1992.

- |               |             |                  |          |
|---------------|-------------|------------------|----------|
| 1.- Imanol    | URBIETA.    | 10.- Juan Mari   | ELOSUA.  |
| 2.- Mikel     | LEGORBURU.  | 11.- Xabier      | ESNAOLA. |
| 3.- Ana       | LILI.       | 12.- Pedro       | BERGARA. |
| 4.- Arantxa   | BERGARA.    | 13.- Gorka       | IRURETA. |
| 5.- Asier     | ARANGUREN.  | 14.- Kike        | LLANOS.  |
| 6.- Aitzol    | ZURIARRAIN. | 15.- Jose Inazio | OTAEGI.  |
| 7.- Jose Luis | URBIETA.    | 16.- Jose Mari   | BERGARA. |
| 8.- Lurdes    | ELORZA.     | 17.- Migel Anjel | UZKUDUN. |
| 9.- Jon       | BERGARA.    | 18.- Inazio      | URBIETA. |



Azken argazia. 1993




## AZKEN ARGAZKIA

1993.

- |                  |             |                  |             |
|------------------|-------------|------------------|-------------|
| 1.- Inazio       | URBIETA.    | 13.- Bittori     | OTAEGI.     |
| 2.- Joxemai      | GURRUTXAGA. | 14.- Jesus Mari  | URBIETA.    |
| 3.- Arantxa      | BERGARA.    | 15.- Ander       | BERGARA.    |
| 4.- Juan Mari    | ELOSUA.     | 16.- Mikel       | LIZARRALDE. |
| 5.- Xabier       | ESNAOLA.    | 17.- Jon         | ARRUE.      |
| 6.- Jon          | BERGARA.    | 18.- Iker        | SARASOLA.   |
| 7.- Aitzol       | ZURIARRAIN. | 19.- Luis        | URBIETA.    |
| 8.- Oskar        | LIZARRALDE. | 20.- Justa       | LETAMENDIA. |
| 9.- Jose Luis    | URBIETA.    | 21.- Jose Mari   | AIZARNA.    |
| 10.- Asier       | EGIGUREN.   | 22.- Migel Anjel | UZKUDUN.    |
| 11.- Imanol      | URBIETA.    | 23.- Mikel       | LEGORBURU.  |
| 12.- Jose Inazio | OTAEGI.     | 24.- Beñat       | ARRUE.      |



Azken argazia. 1994




### AZKEN ARGAZKIA

1994.

- |               |             |                  |             |
|---------------|-------------|------------------|-------------|
| 1.- Juan Mari | ELOSUA.     | 16.- Unai        | URRESTILLA. |
| 2.- Josu      | ZELAIA.     | 17.- Jon         | ARRUE.      |
| 3.- Aitzol    | ZURIARRAIN. | 18.- Mikel       | LEGORBURU.  |
| 4.- Eider     | ZURIARRAIN. | 19.- Mikel       | LIZARRALDE. |
| 5.- Igone     | GONZALEZ.   | 20.- Jose Inazio | OTAEGI.     |
| 6.- Beñat     | ARRUE.      | 21.- Asier       | GONZALEZ.   |
| 7.- Alaitz    | OLAZABAL.   | 22.- Joxe        | OTAEGI.     |
| 8.- Oskar     | LIZARRALDE. | 23.- Jose Mari   | AIZARNA.    |
| 9.- Jose Luis | URBIETA.    | 24.- Iker        | SARASOLA.   |
| 10.- Naroa    | IDIÁKEZ.    | 25.- Migel Anjel | UZKUDUN.    |
| 11.- Josemai  | GURRUTXAGA. | 26.- Aitor       | AIZARNA.    |
| 12.- Oihana   | ENBIL.      | 27.- Inazio      | URBIETA.    |
| 13.- Justa    | LETAMENDIA. | 28.- Asier       | EGIGUREN.   |
| 14.-          | ETXETA.     | 29.- Aitziber    | GALARRAGA.  |
| 15.- Aitziber | AIZPURUA.   | 30.- Maite.      | BASAURI.    |



Azken argazia. 1995





### AZKEN ARGAZKIA

1995.

- |                  |             |                |             |
|------------------|-------------|----------------|-------------|
| 1.- Mikel        | LEGORBURU.  | 18.- Ainara    | IRURETA.    |
| 2.- Joxemai      | GURRUTXAGA. | 19.- Juan Mari | ELOSUA.     |
| 3.- Imanol       | URBIETA.    | 20.- Asier     | GONZALEZ.   |
| 4.- Beñat        | ARRUE.      | 21.- Igor      | GURRUTXAGA. |
| 5.- Ander        | BERGARA.    | 22.- Xabier    | BERGARA.    |
| 6.- Oskar        | LIZARRALDE. | 23.- Jon       | ARRUE.      |
| 7.- Joxe         | OTAEGI.     | 24.- Aitor     | AIZARNA.    |
| 8.- Jon          | BERGARA.    | 25.- Jose Mari | ETXABE.     |
| 9.- Eider        | ZURIARRAIN. | 26.- Iker      | SARASOLA.   |
| 10.- Xabier      | ESNAOLA.    | 27.- Mikel     | LIZARRALDE. |
| 11.- Jose Anjel  | ONEDERRA.   | 28.- Alaitz    | OLAZABAL.   |
| 12.- Migel Anjel | AIERZA.     | 29.- Aitor     | IRURETA.    |
| 13.- Gorka       | IRURETA.    | 30.- Naroa     | IDIAKEZ.    |
| 14.- Jose Luis   | URBIETA.    | 31.- Igone     | GONZALEZ.   |
| 15.- Olaia       | ZURIARRAIN. | 32.- Aitziber  | AIZPURU.    |
| 16.- Jose Mari   | AIZARNA.    | 33.- Maite     | BASAURI.    |
| 17.- Asier       | EGIGUREN.   | 34.- Josu      | ZELAIA.     |

## TXARTELA

Hona hemen jaso izan genuen 1994.ko jaietako txartela.



### ABUZTUAK 13 - Larunbata

HANPA-BIELETAKOAK ETA ZUXURIAK.  
EL MOUNTAIN BIKE IBERALDEA.  
AFARI.  
EADI MUSIKA TALDEA.

Beste gaua gozatu!!!

### ABUZTUAK 14 - Igandea

GIKASKO BILTZAILEEN ERTEERA.  
MEZA NAGUSIA.  
SIBILATHEK HANPALESTAKOIA.  
UME-JOLASAK.  
Eguesari, GIKASKO BILTZAILEEN AURRITZ-  
KETA ATERRAKO INTE PLAZAN TARTUA ETA  
DANBOLINAK LAGUNBERRIK, Odoten hantze-  
ra eta arrotzekin hantze jitarokim nahiko dute  
bitartean izan.

MAINA eta FITZLAR TRIKITELARIAK.

Zare gaua hie daga, bota eta are daga, gau!!!

### ABUZTUAK 15 - Astelehena

Nikoz Niganda  
PELOTA PARTIDUA ESKUTZ.  
PELOTA PARTIDUA, PALAZ, Fiestas.

HERRE KIROIAK (Aizkolariak eta abar).  
Futbola dantza Jeltziak.

ARANTXA eta KOLDO IPARRAGIRRE  
TRIKITELARIAK

!! Irtelegoan, gau-ondreak eta bigarneroko elkarlotzek.

## ITURRIAK

Lantxo hau burutzeko informazio iturri bibliografikorik ez da izan. Batetik, egilea beraren obserbazio eta arakatze kontua izan da, jaiaren bertan parte hartu izanagatik, argazkiak atera, doinua grabatu,...

Bestetik, Joxemai Gurrutxaga Aizarnako oilasko- biltzailearengandik jasotako berriak ere ezinbestekoak izan dira ale honek nolabaiteko itxura hartu zezan, baserri eta pertsona izenak gogoratu, mapa aproposa eskuratuz, adierazpen ugari emanaz, oinarrizko berri emaile eta jaiaren gidarietako bat izan baita.

Nik ateratako argazkietaz gain zenbait jenderen artean ateratakoak ere sartu ditut, batzutan berenkasa aritutakoak, bestetan neure enkarguz, txistua jotzen ari baintzan. Aipatu beharke, bada, Jon Egiguren, Migel Anjel Uzkudun, Joan Guixeras, Joxemai Gurrutxaga, eta azken argazkitarako tente jarri gintuztenak. Eskerrak deneri. Bai hauei, nola jai hau edonola bultzatu eta girotzen aritzen diren guztiei.